



**luma  
zorrozuz**

# birreuskaldundu: euskal gizarte txikitua berritu

JOXE AZURMENDI

Euskalduna euskararen alde dago (dagoenean), bere hizkuntza horixe duelako eta beste gabe. Nahikoa arrazoi da.

Euskaltzalearen kasua konplikatuagoa da. Arrazoi politikoengatik izan liteke, baina ez beti: beti ditu, ordea, arrazoi kulturalak. Haren planteamendu espezifikoa ere kulturalak dira berez.

Uste dut bi posizio horiek ulertzeko gaur ez dagoela problemarik. Egon izan da lehenago, unibertsalismo faltso baten poderioz: Unamunok uste zuen euskara hizkuntza sekundarioa dela eta euskaldunek hobe zutela euskara baztertu; gerra aurreko sozialistek eta komunistek hizkuntza unibertsal bakar baten utopia kultibatzen zuten eta euskarari eutsi nahiari ez zioten ikusten sentidorik. Baina hizkuntza nagusi eta sekundarioen teoria horiek eta unibertsalismo utopiko haiek, ridikulo samar gertatzen dira gaur.

Hizkuntz arazoa gaur gehien-gehienbat giza eskubi-deen aldetik planteatzen delako ere, posizio horietan ez dago problemarik: denok oso humanistak eta demokratikak eta konprentsi-boa gara eta bere mintzairan mintzatzeko eskubidea ez diogu inori ukatu nahi. Egin dezala, nahi badu («ahal badu», esango zuen besteak).

Baina eskubide izateak ez du esan nahi sentidorik izatea. Errosarioa erreztatzen egun osoa pasatzeko eskubidea badaukat, baina jende askorentzat ez dauka sentidorik. Euskara zaintzeak ere jende askorentzat ez dauka sentidorik.

Hasierako bi posizio horiek euskara bere horretan kontsideratzen dute: kontserbatu egin nahi dute, dagoena zaindu, landu, babestu. Dagoena, beti ere.

Problemak, nik uste, euskara zabaldu nahi denean hasten dira: Bilbo edo Tafalla birreuskalduntzeko asmoarekin.

Hemen, izan ere, eskubi-deen arrazoia alderantziz aplikatzen da: gaztelania nagusitu den tokian nagusi uztearen alde. Eta arrazoipide kulturalistei ere kultatik ateratzen zaie tiroa: hizkuntzak gure izpiritua, nortasuna, moldatzen badu etc., lehen euskaldunak erdalduntzea bezain gaiztoa litzateke orain erdaldunok atzera euskalduntzea, etab. Arrazoipide demokratiko-humanista edo kulturalista horiekin badirudi oraingo status quo hauxe betikotu beste erremedio-rik ez legokeela. Badakigu, ordea, de fakto situazio inposible bat besterik ez litzatekeela hori izango. Eta zirti-zart noizpait soluzio definitibo bat aurkitu beharko litzatekeela, euskararen ala erdararen alde.

Arrazoi historikoek ere ez digute enpatea desegiten: lurralde horietan lehenago euskaraz egiten omen zela, eta gobernuen, elizaren, klase nagusien presioz galdu dela, etab. Bai, lehenago paganoak ere baginen, kapusai beltzak jantzita ibiltzen omen ginen, azkon bana eskue-tan, kobazuloetan bizitzen ginen..., eta zer? Etxeetan edanura, hozkailuak, argindarra edukitzera ere, Gobernuen, elizaren eta klase nagusien makina bat presio artean heldu gara. Historian ezer ez da presio gabe gertatzen.

XVIII. mendean euskara gehiago egiten omen zela Irui-nean bertan, dato kultural eta historiko polita da: baina gero-rako politikarik oinarritzeko datoak berak apenas balio du. Datoak ez dira datoak besterik, ez printzipioak.

Lehenari ez, baina uste dut azken finean geroari begira bakarrrik legitima litekeela politikoki Euskadi birreuskalduntzeko programa. Etorkizunari begira. Eta projektu global baten barruan: ez euskararen arazoa isolatuz, euskararena beste arazoetatik aparte utziz. Alegia, projektu sozial orokor batetan: Euskadi osoa komunitate berregin eta solidare bezala burutu nahi duen projektu global batetan. Joanak joan, geroa da politikaz irabazi nahi dena.

Eskubide zapalduak, errepresioak, behiala euskaldunak omen ziren eta orain ez diren herria, ez dakit nongo euskal hondarrak topografian, Tuteran lehenago euskalduna ote zen ala ez, etab-etab. gabilitza beti, beti aspaldiko denborei begira. Zenbait jende asper-asper egiteko ere bai bait da, hemen historiazaleak garen arren. Planteamendu egiaz politiko batetan, ordea, iraganak adina pisu eta gehiago geroak eduki behar luke. Euskadi euskaldun, solidare, libre baten projektu globalak. Ez da bestegatik, Euskadi birreuskaldundu nahi badugu. Ez dugu birreuskaltu nahi, noizpait euskalduna izan omen zelako, afizio arkeologiko eta restaurazionista hutsez, eliza eta gaztelu zaharrak restauratzen diren moduan. Bururatzen dugun projektu sozialean, euskara bakarrrik ez, baina euskara ere inportantea delako baizik.